

Indarrean dauden tasak

Ikus Tarifa bereziak (deskontuak)

IKASTARO MOTA	PREZIOA Eurotan (materiala barne)
Astean 10 ordu urria-ekaina (334 ordu)	435 € (145 x 3)
C1 / Astean 2 egun (5 ordu astean) (165 ordu)	216 (72 x 3)
C2 Astean 2 egun + tutoretza	435 (145 x 3)
Uda ikastaroa – 100 ordu	132 (132 x 1)
Autoikaskuntza / Urria-ekaina	435 (145 x 3)

HABEk onartutako moduluetan sartzen diren beste ikastaroak (orduko prezioa)	1,32 orduko
HABEk onartutako moduluetan sartzen ez diren ikastaroak (orduko prezioa)	1,93 orduko
Enpresa, ikastetxe edo erakundeek antolatutako ikastaro bereziak	43,64 orduko

Ikastaroak Euskaltegitik kanpo ematen direnean, Euskaltegia eta eskolak ematen diren lekuaren artean 2km. edo distantzia handiagoa dagoenean 0,32 €/km.ko kobratuko da.

Lehenengo hiruhileko matrikulak zenbateko berdineko bi edo hiru zatitan ordainduko dira matrikula dataren arabera. Bigarren hiruhilekoan, berriz, dena batera edo zenbateko berdineko bi zatitan. Uda Ikastaroko matrikulak zati bakarrean ordainduko dira. Kasu berezietan, eta ikasleak hala eskatuz gero, matrikula osoa batera ordaintzeko aukera egongo da.

Azarotik aurrera hasten diren ikastaro berezietako matrikulak 3 zatitan ordaintzeko aukera egongo da.

Ikastaroaren 1/3 edo gehiago emanda dagoela matrikulatzen den ikasleak matrikularen 2/3 ordaindu beharko du.

Matrikula eskaerak Udal Euskaltegian aurkeztu behar dira.

Matrikula egiten den une berean sortzen da urteko kuota ordaintzeko obligazioa, beraz, ikasturtean zehar egon daitezkeen bajek –ikasturtea amaitzeko gera daitezkeen hilabeteak zenbat diren kontuan hartzeke- ez dute kuota murrizteko eskubiderik sortzen.

Udal Euskaltegiarekin zerikusia duten eskabide guztiak idatziz aurkeztuko dira Udal Euskaltegiko idazkaritzan.

TARIFA BEREZIAK

1. Aurreko ikasturteko asistentziaren arabera. % 20ko deskontua
2. Guraso edo tutore izateagatik. % 50eko deskontua
3. Merkatari/ostalari edo zerbitzuen sektorean enplegatutako pertsona. % 50eko deskontua
4. Enpresa bateko langilea. % 50eko deskontua
5. 65 urte edo gehiago izatea. % 50eko deskontua
6. Langabea izatea. % 50eko deskontua
7. Ikaslea izatea. % 50eko deskontua.
8. DSBE edo DBL jasotzen dutenak izatea. % 75eko deskontua.
9. Familia ugariaren tarifa / Familia-unitate bereko familiako hainbat kideren matrikulak. %25eko deskontua

Tarifa bereziak izateko, ondoko baldintza hauek bete behar dira:

1. Aurreko ikasturteko asistentziaren arabera. % 20ko deskontua

- Eibarren erroldatuta egotea.
- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea.

Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko Idazkaritzan egin behar da, matrikula-orrian bertan adierazita.

2. Guraso edo tutore izateagatik. % 50eko deskontua

- Eibarren erroldatuta egotea.
- Eibarren erroldatutako seme/alabaren bat edukitzea; matrikula egiterakoan 12 urtekoa edo hortik beherakoa.
- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea, edo lehen aldiz matrikulatzea guraso edo tutore gisa.

Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikula-orrian bertan adierazita ondoko dokumentazio honekin batera:

- Familia-liburuaren fotokopia (gurasoak eta seme-alabak elkarrekin bizi ez badira)

3. Merkatari/ostalari edo zerbitzuen sektorean enplegatutako pertsona. % 50eko deskontua

- Eibarren erroldatuta egotea.
- Establezimenduak egoitza Eibarren edukitzea.
- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea, edo lehen aldiz matrikulatzea merkatari, ostalari edo zerbitzuen sektoreko enplegatu gisa.

Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikula-orrian bertan adierazita eta ondoko dokumentazio honekin batera:

- “Merkatari, ostalari edo zerbitzuen sektoreko enplegatua dela egiaztatzen duen dokumentua” izeneko inprimakia, behar bezala beteta, edo, beste edozein dokumentu, merkatar, ostalari edo zerbitzuen sektoreko enplegatu izate hori egiaztatzekoa.

4. Enpresa bateko langilea. % 50eko deskontua

- Eibarren erroldatutakoa izatea
- Enpresaren egoitza Eibarren izatea
- Enpresak euskara plana eduki behar du indarrean.
- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea, edo lehen aldiz matrikulatzea enpresako enplegatu gisa.

Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikula-orrian bertan adierazita eta ondoko dokumentazio honekin batera:

- “Enpresak Euskara Plana duela egiaztatzen duen dokumentua” inprimakia behar bezala beteta edo enpresak Euskara Plan bat duela egiaztatzeko beste edozein dokumentu.

5. 65 urte edo gehiago izatea. % 50eko deskontua

- Eibarren erroldatutakoa.
- 65 urte edo gehiago izatea matrikula egiterakoan.
- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea aurreko ikasturtean, edo lehen aldiz matrikulatzea 65 urte edo hortik gorako ikasle gisa.

Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikula-orrian bertan adierazita.

6. Langabea izatea. % 50eko deskontua

- Eibarren erroldatuta egotea.
- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea, edo lehen aldiz matrikulatzea langabetu gisa.

Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikula-orrian bertan adierazita eta ondoko dokumentazio honekin batera:

- Enplegurik ez duela egiaztatzen duen dokumentua.

7. Ikaslea izatea. % 50eko deskontua.

- Eibarren erroldatuta egotea
- Irakaskuntza Arautuko (Batxilergoan, Unibertsitatean, Lanbide Heziketan —Erdi Mailakoetan zein Goi mailakoetan—) eta Master batzuetako ikasle izatea (karrera batekin lotuta daudenak).

- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea edo lehen aldiz matrikulatzea ikasle gisa.

Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikula-orrian bertan adierazita eta ondoko dokumentazio honekin batera:

- "Ikasle dela egiaztatzen duen dokumentua" inprimakia behar bezala beteta edo ikasle dela egiaztatzeko beste edozein dokumentu.

8. DSBE edo DBL jasotzen dutenak izatea. % 75eko deskontua.

- Eibarko erroldan egotea.
- Matrikulatutako pertsona edo matrikulatutako adingabearen tutorea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularra edo Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzaren titularra izatea matrikulazio-urtearen aurreko urteko abenduaren 31n.

Tarifa berezi hori Udal Euskaltegiko Idazkaritzan eskatu behar da, matrikula-orrian bertan markatuta eta ondoko agiri honekin lagunduta:

- DSBE edo DBL laguntzen jasotzaile dela egiaztatzeko agiria

9. Familia ugariaren tarifa / Familia-unitate bereko familiako hainbat kideren matrikulak. %25eko deskontua

- Eibarko erroldan egotea.
- Familia ugari bateko kidea izatea edota familiako hainbat kide matrikulatzea.
- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea edo lehen aldiz matrikulatzea familia ugariaren kide bezala edo familia-unitateko beste kide bat edo gehiagorekin batera.

Tarifa berezi hori Udal Euskaltegiko Idazkaritzan eskatu behar da, matrikula-orrian bertan markatuta eta ondoko agiri honekin lagunduta:

- Familia ugarien kasuan: familia ugariaren tituluaren fotokopia

OHARRA: Autoikaskuntzan, diru-laguntza hauetaz baliatzeko, proposatutako lanaren 3/4ak bete behar ditu ikasleak. Kasu honetan, baldintza horrek ordezkutzen du asistentziaren baldintza.

Tarifa berezi hauek ez dira bateragarriak euren artean.

Tarifa berezia izateko eskatzen diren baldintzak, ikasleak betetzen dituen edo ez aztertzeko orduan, alde batetik, Neguko Ikastaroa hartuko da kontuan, eta bestetik, Udakoa.